


# Haziera ere politikoa da



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA

ANTTON OLARIAGA

Zapalkuntzaren kontra borrokatu nahi baldin badugu, ez da aski agintari tiranoak identifikatu, salatu eta beren kontra egitearekin, historiak tamalez etengabe erakutsi digunez. Beharrezkoa da agintari horien boterekeria hain erraz onartzen duen masarengan arreta jartzea, menpeko direnen karakterean dagoelako, La Boetiek ongi ohartarazi zigun bezala, zapalkuntza ulertzeko faktore garrantzitsuenetako bat.

Wilhelm Reichek ongi antzeman zuen zapalkuntzaren fenomeno psikologiarren perspektibatik ere ikertu beharra zegoela, eta aportazio erabakigarria egin zion psikologia sozial eta politikoari, iragan mendeko 30eko hamarkadan, *Faxismoaren masaren psikologia* liburua idatzi zuenean. Bertan, Hitlerren garaipenaren gako nagusienetako bat jendearen psikologian zetzala frogatzen saiatu zen, oraindik behar bezala erabili ez dugun lezio garrantzitsua emanez iraultzaileoi: jendearen psikologia errotik manipulatzea dela botere (autoritario)aren arma indartsuenetako bat, masaren mentalitatea interes zehatz batzuen arabera zizelkatzea, alegia.

Gizarte guztiak saiatzen dira gizarte-eredu hori sustengatzeko beharrezkoa den profil psikologikoa hurrengo belau-

naldietan sortzen. Eta helduaren konfigurazio psikologikoaren oinarria haurtzaroan dagoenez, heziketa da sistema batek horretarako erabiltzen duen tresnarik eraginkorrena: pertsona idealaren diseinu bat egiten da, eta horren arabera erabakitzen zein diren haur batengan txertatu edo erauzi beharreko ezaugarri psikologikoak.

Gurea bezalako gizarte batean, libreki bizitzeko gai izan ez gaitzela da helburu nagusia, nor bere buruaren autoritate gisa bizitzeko gai ez denak ezinbestean beharko duelako beste norbaiten gidaritzan, eta hau bereziki komenigarria delako. Heziketa direktibo horretarako egina da: geure buruaren gaineko konfiantza galduta, eta gure printzipioen arabera bizitzeari utzita, beste interes batzuen arabera bizitzen ikas dezagun eta horretan ohitu gaitzen. Hori da eskolako curriculum ezkutukoaren muina.

Heziketa hau ez da, noski, haurrei minik eragin gabe burutu daitekeen jarduerara. Sano baldin badaude, eta horretarako aski indarra baldin badute, beti jarriko dutelako halako erresistentzia bat, zeinaren kontra ezarri (eta justifikatu)ko baita maila bateko ala besteko biolentzia bat. Heziketa instruktiboak biolentzia kanti-tate inplizitu bat darama.

Buruajabetza psikologikoa eragozteko, dena den, egiturazko dependentzia emozionala sortu behar da pertsona batengan. Eta horretarako, bizitzaren lehen urteetan haurrei eskaintzen diegun hazieraren ingeniaritza fina erabili ohi da, eskola garaiko heziketarena baino eraginkorragoa dena, askoz. Bularra noiz hartu, edo besotan noiz nahi duen, edo pixoihala noiz kendu behar zaion haur bati erabakitzen ez uztea, ohiko praktika pediatrikoa da, normalizatua dugun arren uste bezain neutroa eta kaltegabea ez dena. Gure errealtatea libreki kudeatzeko gure berezko gaitasuna atrofiatzeak, mendekotasuna gure biologian bertan ereitearen ondorioa du, garrantzitsuak zaizkigun kontuek erabakiak hartzea guri ez dagokigula hasieratik beretik ikasiz.

Heziketa politikaren eremuko jarduerara da, baina haziera are gehiago. Horren bitartez instalatu ahalko zaigulako sozio-rregulazioaren araberako bizimodu interesatua, edo askatasunaren oinarri den autorregulazio (eta autogobernu) arena. Doktrinamenduaren kontra, pertsonak psikologikoki sendoak (eta libre) izateko heziketan eta hazieran egin beharreko aldaketetan jarri behar dugu indarra. ●